



PRENTSA-OHARRA

Familiarteko antzerkia euskaraz, larunbatean, Iturramako Civivoxean, Producciones Maestras konpainiaren *Martinaren parke fantastikoa* antzezlanarekin, bi saiotan

Emanaldiak 12:00etan eta 18:00etan izango dira, sarrerek 3 euro balio dute, eta ikuskizuna *Teatreves* Nafarroako antzerki profesionala erakusteko programaren barruan dago

Teatreves. Antzerki-arratsaldeak zikloaren bigarren ikuskizunaren txanda izango da larunbatean, Iturramako Civivoxean, oraingoan haur eta familiendako. Producciones Maestras konpainiak *Martinaren parke fantastikoa* taularatuko du, bi emanalditan, 12:00etan eta 18:00etan. Sarrerak 3 euroan daude salgai, eta Civivoxean bertan eros daitezke, edo Interneten bidez, www.pamplona.es edo www.pamplonaescultura.es webguneetan.

Antzezlanak Martinaren istorioa kontatzen digu, arratsaldero parkera jolastera joaten den neskato bat. Bertan lagunekin jolasten da, usoekin, kamioiekin, jolasteari beldur ez dioten adinekoekin... Parke horretan mundu berriak aurkitzen ditu, ausart eta beldur izatea zer den deskubritzen du. Deskubritzen du, gainera, haren irudimenak ez duela mugarik. Parkean abentura ikaragarriak bizitzen ditu, txiki zein handiak, bakarrik zein lagunekin, bizitzea bera abenturarik zoragarriena baita. Martinak ikusleei kontatuko die sentitzen duen oro, eta haren parke fantastikoan arratsalde batean gerta daitekeena ere partekatuko du. Ana Maestrojuánek zuzendu du lana, eta Iratxe García Úriz, Oier Zuñiga eta Txori García Uriz dira antzezleak.

Nafarroako antzerki profesionala erakusteko *Teatreves* programa otsailaren 22an, ostegunarekin, amaituko da, *Todas eran mis tías* obrarekin, La Nave Teatro konpainiaren eskutik. Iturramako Civivoxean ikusi ahal izango da, 19:30an, eta sarrerak 6 euroan daude salgai Civivoxean bertan eta online, www.pamplonaescultura.es webgunean. Zikloaren lehenbiziko ikuskizuna gaur, otsailak 15, ostegunarekin, izango da, 19:30ean, Iturramako Civivoxean. La Banda konpainiak *Km 0* antzezlanak taularatuko du, eta sarrerak 6 euroan daude salgai.

Producciones Maestras konpainia

Producciones Maestras antzerki-konpainiak testu propioetatik abiatzen diren lanak ekoitzi eta banatzen ditu, betiere entretenimendua eta umorea bilatuta eta ikusleei eskaintzen dien

1. orrialdea, (e)tik 3





produktua zainduta. Ángel García Moneok eta Ana Maestrojuánek osatzen dute konpainia, eta haien bideak, ibilbide profesional luzeak eta proiektu komun bat uztartu dituzte, kultura sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko plataforma bat sortuta.

Aktoreei dagokienez, Iratxe García Úrizek Arte Dramatikoa ikasi zuen Nafarroako Antzerki Eskolan, eta prestakuntza beste zenbait profesionalek emandako ikastaroekin osatu du. Honako konpainia hauekin aritu da lanean: TEN, NAE, A'kus, Teatro Mahagoni, Gayarre Antzokia Fundazioa, La Ortiga eta Caracois. Zinema eta telebistan, protagonista izan da *Anamorphosis* eta *Nexos* film luzeetan eta *De camino a...* eta *Distopía* film laburretan. Horrez gain, Barúa, Goth Cash eta Barricada taldeen bideoklipetan parte hartu du.

Txori García Úriz Gizarte Lanean diplomaduna da. Arte Dramatikoa ikasi zuen Nafarroako Antzerki Eskolan. La Ortiga T.D.S. eta Caracois Teatro konpainien fundatzaileetako bat da. Honako konpainia hauen muntaietan parte hartu du: Ados Teatro, TEN, Nafarroako Ganbera Abesbatza, NAE, Tempomobile, Nafarroako Ganbera Opera eta Gayarre Antzokia Fundazioa. Zineman, *Anamorphosis*, *Bajo las estrellas* eta *Blue Lips* filmetan parte hartu du.

Oier Zuñigak Arte Ederrak ikasten ditu Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), Leioan. Musika-munduan, arte plastikoetan eta irudigintzan muturra sartzeaz gain, aktore gisa prestatu zen Nafarroako Antzerki Eskolan, Arte Dramatikoko ikasketa profesionalak egin zituelarik 2011 eta 2014 artean. Marrazkilari gisa ari da lanean, eta aktore gisa, zenbait proiektutan.

TEATREVES. ANTZERKI-ARRATSALDEAK

- **Otsailak 17, larunbata. 12:00 eta 18:00. Iturramako Civivoxa**
 - ***Martinaren parke fantastikoa***
 - Producciones Maestras
 - Antzerkia familiarrean, euskaraz. Dramaturgoa eta zuzendaria: Ana Maestrojuán. Interpretatzaileak: Iratxe García Úriz, Oier Zuñiga eta Txori García Uriz. Argien diseinua: Koldo Tainta. Proiektzioak: David Bernués. Jatorrizko abestiak eta soinu-espazioa: Gorka Pastor. Ekoizlea: Producciones Maestras.
 - Sarrera: 3 euro.
- **Otsailak 22, osteguna. 19:30. Iturramako Civivoxa**
 - ***Todas eran mis tías***
 - La Nave Teatro
 - Antzerki garaikidea. Dramaturgoa eta zuzendaria: Miguel Munarritz. Aktorea: Marta Juániz. Dantzaria: Uxue Olazarán. Klarinetea: Marien Mejail. Koreografoa: Arantxa Villanueva. Argien diseinua: Koldo Tainta. Eszenografiaren diseinua: Joaquín Juániz. Diseinu artistikoa eta eszenografia-diseinua: Alicia Otaegui.



Ezenografiako irudiak: José Luis Larrión. Modeloa: Claudia Lafuente. Jantziak: Miren Juániz eta M^a Eugenia Molina. Ekoizlea: La Nave Teatro

- Sarrera: 6 euro.

Iruñean, 2018ko otsailaren 15ean